



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2020KO APIRILAREN 6AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), modu telematikoan alarma egoeran egonik, 2020ko apirilaren 6an arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Iizarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Julen, Beunza, Olatz Dorai, Xabier Azpiroz, M Mar Ansorena eta Ricardo Aragoa,

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.-aurreko batzarreko akta onartzea.

Emailaz bidalitako otsaileko batzarreko akta onartzen dute bildutakoek aho batez.

2.-Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2020/9 alkate ebazpena onartuz Bi Ahizpak empresak aurkeztutako 302.50 euroko aurrekontua BEZ kanpo, Ttikienako aurkezpen bideoa egiteko.

-2020/10 alkate ebazpena 2019ko azaroaren 30tik aurrera inskribatutako ondasun higiezin baliok onartu, eta behin balio horien notifikazioa egin ondoren, 2020 urteko katastroan sartzea, 12/2006 Foru Legearen 21.8 artikulua esaten duen bezala.

- 2020/11 alkate ebazpena onartuz Obysur empresak aurkeztutako aurrekontua 5.827,50 eurokoa BEZ kanpo, Berueteko bidegurutzean, Jauntsaratsko eskolan eta Aizarotzko zeharbidean zolatze lanak egiteko.

- 2020/12 alkate ebazpena Ikusita martxoaren 14ko 2020/463 Errege Dekretua, koronabirusarengatik alarma egoera ezartzen duena, ondoko erabakiak hartzea Basaburuko Udaleko jendeaurreko arreta etetea telefonoz eta telematikoki

martxoaren 30a arte egitea, eta udalak antolatutako iharduerak bertan behera utzi eta jendea biltzeko diren guneko publikoak itxi.

- 2020/13 alkate ebazpena onartuz 2020 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 9136BBW matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 90,06 erokoa izanen delarik.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.-2019ko aurrekontuaren luzapena.

Idazkariak azaltzen du 2020.urte aurrekontu onartu gabe ireki dela eta hortaz eta 1990/6 Toki Administrazio Foru Legearen 270. Artikuluaren arabera, 2019ko aurrekontua luzatzeko akordio hartu behar da. Aurrekontu luzatu honetan ez dira sartzen ez inbertsioen partidak ez sarreretan inbertsio transferentziak, bakarrik ohiko gastu eta sarrerak sartzen dira.

Hortaz, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

-Onartzea 2019ko aurrekontuaren luzapena 2020ko aurrekontua onartu arte.

Ricardo Arangoa bertaratzen da bilerara.

4.- Bake epailearen hautaketa prozedurari hasiera ematea.

Idazkariak azaltzen du Justizia Poterearen Lege Organikoaren arabera bake epaileen agintaldia 4 urterako da, Basaburuko bake epailearen kasuan maitzean bukatzen da agintaldi hori. Hautaketa prozesu berriari hasiera emateko agindua bidali dute Nafarroko Epaitegi Gorenetik, prozedura hortaz udalak hasten du, eta hartu beharreko akordioa prozedurari hasiera ematea izanen da. Hasierako akordio hau Nafarroko aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta hautagaiek iragarkia argitaratu ondoren 15 eguneko epea izanen dute bere proposamena aurkezteko, Hautagaiek aipatutako lege organikoaren 303. Artikuluaren arabera gaitasun psikikoak indarrean izan behar dituzte eta ez indarrean izan kartzela edo bestelako zigorrak. Aurkeztutakoen artean ondoren batzarrak izendatzen du hautagaia,

Bildutakoek aipatzen dute kontutan hartuko beharko liratekeela, erabilgarritasuna (autoa izatea, mugikorra, estaldura, Basaburuan bizitza egitea...),gainera ere euskara, emakumea izatea eta langabezian egotea ere kontutan hartuko dira...Gaia eztabaidatu ondoren balorazio irizpideak finkatuko dira izendapena egiterakoan, eta bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa eta Bake Epaileen gaineko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamendua bete beharrez, udalerriko bake epaile titularren kargu hutsa betetzeko deialdia egitea eta eskaerak udaleko bulegoetan aurkezteko, legezko baldintzak biltzen dituzten interesdunek hamabost egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunetik hasita. (Kontutan

hartuta alarma egoeran epeak etenak daudela, epe hori altxatzean bidaliko da iragarkia argitaratzera).

5.- 2020ko la egutegia.

Alkateak langileekin adostutako lan egutegiaren proposamena irakurtzen du.

–Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

–Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

–Martxoaren 19a: San Jose.

–Apirilaren 9a: Ostegun Santua.

–Apirilaren 10a: Ostiral Santua.

–Apirilaren 13a: Pazko astelehena.

–Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

–Abuztuaren 14a. Andre Mariaren Jasokundearen aurreko eguna. Tokiko festa,

–Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea.

–Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

–Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

–Abenduaren 4a: San Frantzisko Xabierkoaren eguneko zubia. Tokiko festa.

–Abenduaren 7a: Konstituzio egunaren biharamuna.

–Abenduaren 8a: Andre Maria Sortzez Garbia.

–Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Gainera 3 jaiegun, eta 20 minutu gehiago ezarri dira, langile bakoitzak hautatzekoak, baldintza izanik ez dela udala jendearendako itxiko.

Orobat, baliogabeak izango dira, 2020an epeak kontatzeari dagokionez, larunbata eta igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

Basaburuko Udaleko lanaldiaren urteko lanordu kopurua 1.592 izango da eta honela banatuko da:

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da, 7:30etatik 16:00etara.

A) Jendea hartzeko eta Erregistro orokorra irekitzeko ordutegia 9:30etik 13:30era izango da.

B) Organo administratibo eskudunek erregelamenduz ezarritako oporrak emango dituzte, gisa honetan: oporraldi luze bat edo bi eta egun solteak, urtean zehar hartzeko, zerbitzuko beharrek hala uzten dutenean.

Horrez gainera, langileek probesteko 3 egun izango dira, norberaren aferetarako, Alkatetzari aurretik behar beste denboraz eskatu eta arrazoitu behar zaizkionak.

C) Aurreko ataletan aipatutako lanaldiaren banaketa eta oporrak ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta lanaldi berezi suerteren bat dutenei, ezta haur eskolara atxikitako langileei ere, horiek beren lan egutegia izanen baitute; hala ere, orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua errespetatu beharko dute.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2020rako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren egokitzapenak egingo dira.

Bildutakoek proposamena aztertu ondoren , proposatzen dute urriaren 12 jai ez izatea, la eguna baizik eta jai hori beste egun batera pasatu edo langileek jai egunen poltsara.

Proposamen hau langileek aztertzea eskatzen dute eta hurrengo batzarrean berriro aztertuko da Gaia.

6.- Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailean udal planaren aldaketa. Parte hartze planaren onespina.

Alkateak azaltzen du hirigintza batzordean aztertu zela gai hau, udal planaren aldaketa guztiak tramitatu baino lehen parte hartze plana aurkeztu behar dute sustatzaileek eta parte prozesua burutu eta honen emaitzak udal planaren aldakaren memoria erantsi.

Pare hartze prozesua egin zen jada, Igoan bilera bat burutu zen plan aldaketa aurkezteko, bertaratu ziren bilerara kontzejuko kideak, udaleko ordezkariak eta ondoko lursailen jabeak beste biztanleen artean. Bileran ez ziren ekarpenak egin.

Udal arkitektoak ontzat eman du parte hartze plana eta hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailean udal planaren aldaketarako parte hartze plana.

Gai ordenetik kanpo badaude hirigintza batzordean aztertutako beste bi gai, eta presazkoak izanik bildutakoek gai ordenean sartzea onartzen dute aho batez.

Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailean udal planaren aldaketa.

Alkateak azaltzen du, hirigintzan aztertu ondoren, hasierako onespenerako proposamena egin zela batzarrerako, Udal planaren aldaketa honekin lurraren izaera aldatu nahi dute sustatzaileek etxebizitza bat egikaritzeko. Irakurtzen du udal arkitektoak egindako baiezko txostena, bertan ere aipatzen da udalarentzat proposamen bezala hasiera batez ere onartzeko, lehenik, sarrera aldatzeko proposamena eta 141. Lursaileko sarrerarekin bat egin honen sarrerako pareta egokituz, gune honetan ez dagoela hainbesteko malda, eta bigarrenik, aipatutako aldaketa honek ere eragina dauka 141. Lursailak landa lurra izaera duen aurre aldeko zatia hiri lurrera pasatuz, jada urbanizatua dagoen zatia izanik ere, sarrera zolatua eta eraikin gehigarri bat egonik. Behin behineko onespenerako sustatzaileek dokumentu gehigarri bat aurkeztu beharko dute udal arkitektoaren 20/198 txostenera egokituz

Bildutakoek gaiz eztabaidatu ondoren, ondoko erabakia hartzen dute aho batez:

-Hasiera batez onartzea Igoako 9.poligonoko 287. Lursailerako aurkeztutako udal planaren aldaketa, aldaketa honen helburua lurraren izaera aldatzea izanik, landa lurretik, hiri lurrera ohiko etxebizitza bat eraikitzeko.

2017/1 Foru Legearen 77.artikuluaren arabera akordio hau Nafarroako aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu hilabeteko epean jende aurreko epean egon dadin, alegazioak jartzeko aukera izan dezaten bai sustatzaileek bai aldaketa honekin lotutako beste lursailletako jabeek.

-Hasiera batez onartzea ere aldaketa honekin lotutako proposamenak udal arkitektoaren 20/198 txostenaren baitan: Lursailaren sarrera aldatuz eta 141. Lursailak duenarekin lotu malda gutxiago duen gunea aprobetxatuz eta 141. Lursailaren aurreko aldean dagoen urbanizazioren izaera aldatu hiri lurrera pasatuz.

- Jakinaraztea erabaki hau sustatzaileei, Igoako Kontzejuari eta 141. Lursaileko jabeei.

Aizarotzko UOR1 unitatearen birzatiketa proiektuaren aldaketa. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du gaia hau ere hirigintza batzordean aztertu zela eta sustatzaleek 2016an tramitatutako birzatiketa proiektuaren aldaketa proposatzen dutela, katastroan akatsak zeudelako eta orain mugen altxaera berri bat egin delako. Birzatiketa proiektu honek ez ditu aurretik zeuden lursailen azalera aldatzen. Alkateak irakurtzen du udal arkitektoaren 20/197. Baiezko txostena. Txostenaren arabera ez dago oztoporik hasierako onespena emateko beti ere behin betiko onespenerako dokumentu gehigarri bat aurkezten badute, lursailen jabe berrien izen abizenak zuzenduz eta jabe guztiek sinadurak bilduz, gainera ere Nafarroko Lurralde Aberastasun Zerbitzuaren baiezko txostena aurkeztu beharko dute.

Hau kontutan hartuta eta udal arkitektoaren 20/197. Txostenaren arabera, bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute.

-Hasiera batez onartzea Aizarotzko UOR1 unitatearen birzatiketa proiektuaren aldaketa eta iragarkia hau Nafarroako aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu 20 egun balioudunen epean 2017/1 Foru Legearen 151. Artikuluaren arabera.

-Jakinarazi erabaki hau sustatzaileei adieraziz behin betiko onespenerako aurkeztu beharko dutela dokumentu gehigarri baten bidez, lursailen jabe zuzenen izendapena , Nafarroako Lurralde Aberastasun Zerbitzuko baiezko txostena eta guztien sinadurak.

7.-Mozioak..

Alkateak ondoren zehazten du bi mozio edo adierazpen daudela leheni, goi tentsioko linearen ingurukoa eta bigarekin elikadura soberanistaren ingurukoa.

Ricardo Arangoak azaltzen du Goi Tentsioko linearen kontra dagoen plataformarekin bilerak egin ondoren hau dela prestatutako mozio proposamena.

“Azterketa Eremuan dauden Udaletan, Estatuko Ingurumen idazkaritzaren ingurumen ebaluazio orokorraren Ordezkariordeztatik, Trantsizio Ekologikoaren Ministeriotik, jakinarazpen bat jaso zen 2019ko udaberrian, “Itsasoko 400KW azpiestazio elektrikoan, joan etorriko 400KWko Linea, zirkuitu bikoitza, Castejon Muruarte eta Itsaso-Orkoien (Nafarroa, Euskal Autonomi Erkidegoa) 1 eta 2 linea elektrikoan

berrindartzea” proiektuari dagokion ingurumen inpaktuaren azterketak izango duen eragina eta sustatzailea Red Eléctrica de España S.A. da.

Proiektu hau zorretan zegoen eta aurreko biak ordezkatzera dator. Vitoria-Gasteiz/Castejon-Muruartera zihoan lehen proiektua atzera bota zen, 2010eko azaroaren 12ko BOE 274an jasotzen den bezala, ingurumenari eragiten zizkion kalteagatik eta proiektu hark gizartean sortu zuen kontrako jarreragatik. Bigarren proiektua 2011ko abuztuan iritsi zen kaltetutako udaletara. 2011ko abenduaren 17an, Udal hautetsien Batzarrak Estatuko, Nafarroako eta Erkidegoko gobernuie eskatu zien, proiektua bertan behera uzteko, proiektuaren kaltea pairatuko luketen 220 udal eta kontzejuk onartutako mozioei oihartzun emanez. 2013ko maiatzaren 15ean, Industria eta Energia Ministerioari, garraio elektrikoko azpiegitura berriak bertan behera uzteko eskatu zioten 174 alkatek eta uztailaren 19an, herritarrek, udalek eta kontzejuek sinatutako 14.000 alegazio aurkeztu ziren.

Horregatik, herritarren oposizioa sortu eta aurreko bi proiektuak bertan behera uztea ekarri zuten arrazoi berdinak, intentsitate berdinarekin edo handiagoarekin mantentzen dira, gaur egungoa kontsultara bideratzen ari den honetan. Proiektu honek lehenengo aldiz jasotzen du proiektua justifikatzeko arrazoi moduan, “Frantziara esportatzeko programa altuko agertokia”.

Proiektu honek, pasatzen den lurraldeen hornikuntzan inolako justifikaziorik ez duenez eta Nafarroako eta Gipuzkoako lurralde zati bati oso modu negatiboan eragingo dio, paisaian, ingurumenean eta herritarren osasunean. Aldi berean ez da bateragarria lurralde antolamenduari eta kaltetutako herrien etorkizuneko garapen aurreikuspenekin eta gainera ehun produktiboan, turismoan eta lehen sektorean izugarritzko kaltea ekarriko du

Udal honek ONARTZEN du:

1º.-Gipuzkoako Itsasoko azpi-estazioa eta Nafarroako Castejon-Muruarte linearekin, Tafalla parean, lotu nahi dituen 400 KV Goi Tentsioko Linearen proiektuari erabateko desadostasuna azaltzea, gizartearen interes orokorrerako inolako justifikaziorik ez izateagatik.

2º.-Nafarroako Gobernuari eta Legebiltzarrari eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, proiektuari ezezkoa eman diezaioten eskatzea, paisaian, ekonomian eta ingurumenean izango dituen kalteengatik, jasangaitza delako eta potentzialki kaltetutako herrietako gune gakoetan izango duen afekzioa kontuan hartuta.

3º.-Akordio hau Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari eta Nafarroako Gobernuari bidaltzeaz gain komunikabideen bitartez publiko egitea.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute transkribatutako mozioa eta ametza komunikabideari helaraztea adosten dute ere.

Bigarrena adierazpen instituzionala da eta honela dioela irakurtzen du alkateak;

1. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena, indarrean sartzeak mugak jartzen dizkie Espainiako estatuko herritarren sektore askori. Lehen sektorea, biztanleriarentzako oinarrizko elikagaien ekoizlea, ez da aintzat hartzen egungo krisi-egoeran beharko lukeen neurrian, bereziki, maila txikiko ekoizpena.

2. Elikatzeko eskubidea 1948an onartu zen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta ondorengo nazioarteko tresnetan. Elikadurarako Eskubidearen aldeko Jarraibideen arabera (FAO 2004), Estatuaren erantzukizuna da elikadura eta nutrizio egokirako eskubidea errespetatu, babestu eta bermatzea, batez ere gaur egungoa bezalako krisi egoeretan. Era berean, Nazio Batuetako Elikagaien Segurtasunerako Batzordeak, krisialdi luzeetarako Ekintza Esparruaren dokumentuan, 1. gomendioan, hau adierazten du: “Tokiko elikadura-sistemak sendotzen dituzten politikak integratzea, erresilientzia handitzeko osagai nagusi gisa, tokiko erosketen bidez eta elikadura-erreserbak sortuz”.
3. Europako Batzordeak, zehazki, osasuna babesteko eta oinarritzko ondasun eta zerbitzuen eskuragarritasuna bermatzeko mugak kudeatzeko neurriei buruzko jarraibideetan (COVID19) – (2020/C 86 I/01) ezartzen duenez, “sendagaiak, ekipamendu medikoak, funtsezko elikagaiak eta produktu galkorrak eta azienda bezalako funtsezko produktuen hornikuntza-katea” bermatu behar da.
4. Testuinguru horretan, paradoxikoa da Espainiako Gobernuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan (463/2020 Errege Dekretuak, COVID19 delakoak eragindako osasun-egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duenak), baimena ematea zenbait jarduera egiteko, hala nola elikagaien txikizkako salmenta edo saltokiak irekitzea, “...kontsumitzaileek elikagaiak eta premiazko produktuak eros ditzaten”, baina elikagai ez-egonkorren merkatu gehienak ixten ari dira, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa ez da erantzun edo ohar informatibo bat prestatzen ari, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean alarma-egoerari buruzko errege dekretua aplikatzeari buruz emandako erantzun edo ohar gisa, horren inguruan dauden nahasmena eta zalantzak argitzeko.
5. Agroekologia mundu osoan FAO eta EB bezalako erakundeek aitortutako nekazaritzako elikagaien mugimendua eta erdua da. Espainiar estatuan, gero eta zabalduago eta babestuago daude elikagai osasungarriak eta ingurumena errespetatzen duten elikagaiak ekoizten dituzten milaka baserri eta ustiategi; eta milaka familia, komertzializazio-kanal laburrei esker, elikagai horiek kontsumitzen dituzte, bai banaka, bai merkatu edo saltoki txikien bidez, bai kontsumo-taldeen bidez. Kanal horiek, askotan herritarrek eurak sortutakoak, prezio justuak eskaintzen dituzte bai ekoizten duenarentzat, bai kontsumitzen duenarentzat. Horrela, aukera bideragarri gisa finkatu dira ohiko kanalen prezio-politiken aurrean, hala nola banaketa handiaren aurrean. COVID19k eragindako krisiaren aurrean, eredu agroekologikoak eskariari erantzuten lagun dezake, eta ohiko merkaturatze-kanaletan funtsezko elikagaiez hornitzeko beharrezko tresnak eskaintzen ditu, agintariek agindutako neurri higieniko-sanitarioak hartuta.
6. Ekoizpen txiki eta agroekologikoetako elikagaien komertzializazioaren adierazpen aberats, dinamiko eta seguruetako bat hurbileko merkatu ez-sedentarioak dira. Horietan, denboran maiz egiten diren hitzorduen bidez, nekazariak, abeltzainak eta artisau-ekoizpen eta -eraldaketa txikiek zuzenean, bitartekorik eta ia desplazamendurik gabe, elikagai freskoak, osasungarriak eta ingurumena, klima eta pertsonak errespetatzen dituzten merkaturatzen dituzte. Hurbileko elikagai-merkatu ez-sedentario horiek, osasun-agintariek ezartzen dituzten segurtasun-protokoloak betez (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, eta maiatzaren 26ko 640/2006 Errege Dekretuan ezarritakoei gehituta, dekretu horren bidez arautzen baitira higienari, elikagaien ekoizpenari eta merkaturatzeari buruzko Europako Erkidegoko xedapenak aplikatzeko zenbait baldintza), osasungaitasun-baldintzak eskaintzen dituzte:
 - Normalean, aire librean edo hornidura-azoka bezalako leku handietan egiten

dira, espazio itxietan egin beharrean, non errazagoa da segurtasun-tarteak mantentzea.

- Bitartekarietatik pasatzen ez diren elikagaiak eskaintzen dituzte, askotan baratetik erosketa-otarrerraino zuzenean doazenak, kutsadura-aukerak gutxituz, merkataritza-katearen mailak handitu ahala handitzen baitira.
- Hurbileko merkatu ez sedentarioetako elikagaiak ez daude ehunka bezeroren eraginpean, kutsadura-iturri izan baitaitezke.
- Hurbileko merkatu ez-sedentarioak ekoizleek eurek kudeatzen dituzte. Ekoizleek, legez, prestakuntza handia dute higienaren eta osasunaren arloan, eta, beraz, prest daude ekoizpenak baldintza ezin hobeetan saltzeko eta eskakizun berrietara egokitzeko.
- Nahitaezko konfinamendu-une hauetan ezinbestekoak diren elikagaiak eskaintzen dituzte, nutrizio-kalitate handiagokoak, pertsonen immunitate-sistema indartzeko garrantzitsuak.

7. Gobernuak eta zenbait autonomia-erkidegok eta udalek osasun-krisiaren eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz hartutako hainbat dekretu eta erabakiren ondorioz, hurbileko elikagai-merkatu ez-sedentario gehienak itxi egin dira, eta zigorrak ezarri zaizkie nekazariei eta abeltzainei, beren ezinbesteko lana garatzeko, bai eta merkaturatze-zirkuitu laburren kontsumitzaileei eta autokontsumorako baratzezainei ere. Zigor horiek zuzeneko errepresioa eta erasoak dakarte eskala txikiko oinarrizko produkzio txikiari, bai eta pertsona guztiek elikadura eta ingurumen osasungarria izateko duten eskubidea urratzea ere (FAOren Jarraibideak, 2004). Era berean, sektore batekiko bereizkeriarik ezaren printzipioa hausten da, tokiko ekonomiak babestuz kontsumitu nahi dituztenena, hain zuzen ere, laguntza gehien behar duen eta gure erresilientzia gehien indartzen eta gaur egungoa bezalako shock-egoeretan gure zaugarritasuna murrizten duen ekonomia (Europako Batzordearen 020/C 86 I/01 Jarraibideak).

8. Hiltegi eta zatikatzeko areto asko geratzen ari dira ostalaritza-sektoreak ez duelako eskaerarik egiten, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez itxi baitzen. Itxitura horrek bereziki abeltzain estentsiboei eragiten die, dagoeneko galerak baitituzte beren produktuak merkaturatu ezin dituztelako.

9. FAOk berriki ohartarazi du “apiriletik eta maiatzetik aurrera etenaldiak izango direla elikagaien horniketa-kateetan”. Eta saltoki handiek egindako metaketa masiboaren ondorioz, zenbait baratzkiren prezioa igo egin da, MercaMadrideko kalabazinarekin kasuan %273, martxoaren 12az geroztik, adibidez. Beraz, funtsezkoa da, inoiz baino gehiago, tokiko ekoizpen iraunkorra eta osasungarria bermatzea, eta produktu freskoak, konfinamendu-egoera batean ezinbestekoak direnak, kontsumitzaileengana iristea, bereziki ahulenengana.

ESKATZEN DUGU

1. Autonomia-erkidegoei eta udalei beharrezko jarraibideak ematea, beren eskumen diren merkatu ez sedentarioetarako irtenbideak bila ditzaten, sarbide kontrolatua ahalbidetzen duten espazioetan, Balear Uharteetako Gobernuak ezarritako protokoloen arabera osasun-higiene eta -segurtasuneko baldintzak arautuz, COVID19 kutsatzea saihesteko, biztanle guztientzako elikadura- eta elikadura-bide egokiak hobetzeko helburuarekin.
2. Esplizituki baimena ematea elikagaiak beren kabuz hornitzeko etxalde, baratze eta ukuiluetara joateko, baita pertsona hori nekazaritzako erregimenean alta emanda egon gabe ere, bai etxaldearen funtzionamenduari eusteko, bai elikagaien uztarako, Galiziako Landa Ingurunearen Sailak egin duen bezala. Halaber, baimendu daitezela transhumantea eta transterminantea den

- aziendaren joan-etorriak.
3. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7.1.a artikulua berran, kontsumitzaileek baserrian/ekoizpen gunean zuzenean elikagaiak erosteko egiten dituzten joan-etorriak kontuan hartzea, baserri/ekoizpen gune hori ohiko saltokia bada, edo kontsumo-taldeetan, betiere ezarritako segurtasun-protokolo guztiak betetzen badira.
 4. Erosketa publikoan (ospitaleak, zahar egoitzak, jantoki sozialak, eskolako jantokiak, etab.) eta elikagai-bankuek, inoiz baino gehiago, tokiko produktuak, ekoizle txikiak eta agroekologikoak lehenetsiko dituzte, batez ere ostalaritzaren itxierak gehien kaltetu dituen sektoreetako produktuak.
 5. Abeltzainei osasun-erregistroak ematea malgutu, bultzatu eta azkartu dadila, produktuak zuzenean saltzea errazteko, esne gordina barne, baldin eta 853/2004 Erregelamenduaren III. eranskineko IX. ataleko I. kapituluko irizpideak betetzen badira.
 6. Neurri fiskalak ezartzea, hala nola autonomoak ordaintzetik salbuestea, nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiei laguntzeko, jendartearentzat funtsezkoak diren beste sektore batzuekin bezala, COVID19ren pandemiarekin lotutako krisiak eragindako galerak arintzeko. Halaber, inoiz baino gehiago bermatu behar da industriak eta banaketak bidezko prezioa ordainduko dietela ekoizleei.
 7. Autonomia-erkidegoei eta udalei, estatuko segurtasun-indar eta -gorputzei eta, oro har, jendarteari jakinaraztea oso garrantzitsua dela, inoiz baino gehiago, ekoizleek eta saltoki txikiek gure nekazaritza-ekosistemak elikatzea eta haiei eustea. Beraz, ahalik eta produktu gertukoak eta freskoak kontsumitzea, bai eta hurbileko merkatu ez sedentarioen eta zuzeneko salmentako beste bide batzuen elikadura-segurtasuna ere.
 8. Zuzeneko salmenta eta banaketa-kanal laburrak erraztuko dituzten ondorengo guztiak aintzat hartzea: udal-hiltegiak edo komunitate-hiltegiak, edukiera txikiko espezie anitzekoak, ustiapeneko hiltegiak eta/edo hiltegi mugikorrek berrikitzea edo sortzea sustatzea, segurtasun-neurriak areagotzeko, animalien sufrimendua gutxitzeko eta ustiategi txikiei laguntzeko, eta lokalak berriro irekitzea edo zatiketa-aretoak sortzea. Hori guztia sektoreko errealitatearekin bat datozen araudi higieniko-sanitarioekin.

Bildutakoek aho batez onartzen dute transkribatutako adierazpena.

Mari Marrek azpimarratzen du alarma egoera honekin lotuta zuzeneko salmenta egiten dutenek eta kaleko merkatuez baliatzen direnen atea itxi direla bakarrik supermerkatuetako salmentak onartuak daudelako, eta segurtasun neurriak betez halako merkatuak ahalbidetzea onartu beharko luketeela.

8.- Batzordeen informazioa.

- Ogasun Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Marxoko faktura ordaintzea erabaki zen tesoreria egoera ikusita, bestetik Sasoi empresak aurkeztutako abala bueltatzeko eskaera Jaunsaratsko karriken obrarekin lotuta kontzejuarekin aztertzea erabaki zen, Aizarotzko lotearen 1. faktura bidaltzea maderas Larretari eta bukatzeko 2019ko zordunak Geserlokalerara bideratzea.

- Gizarte Politika Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Maskarillak erosi dira eta oihala ere, bi pertsona daude maskarillak egiten. Kotsultategiarekin kudeatu da gai hau eta Basaburuko 60 urtetik gorakoei gutun batekin batera maskarilla etxera bidali zaie postaz. Gutunean koronabirusarekin lotutako gomendioak ematen dira.

9.- Informazio orokorra.

Alkateak aipatzen du Osasuna Bultzatzeko programen dirulagutnza deialdia atera behar zela alarma egoeran sartu baino lehen eta momentuz bertan behera gelditu dela.

Oraindik ez dela bildu aizarotzko kontzeju izateko erabakia hartu behar duen Lurralde Batzordea adierazten du ere Santos Etxegiaren galderari erantzunez

Santos Etxegiak ere aipatzen du pentsatu beharko dela zer egin Basaburuko egunarekin,, atzeratu edo bertan behera utzi...

10.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 20:40 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.